

A·02 Antropologia, hezurren hizkuntza

01

Kurtsoa/Maila

1. DBH
2. DBH
3. DBH
4. DBH
1. Batxilergoa
2. Batxilergoa

Datak

2026 Urria - 2027 Maiatza

Ikaskuntza-arloak

Biologia
Fisika
Geologia
Kultura zientifikoa
Lanbide-orientazioa
Teknologia

Jarduera formatua

Aditua ikasgelan

Hizkuntza

Euskara, Gaztelania

Irismen geografikoa

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa

Jarduera ematen duen erakundea

Aranzadi Zientzia Elkarte

Jarduera honek bioarkeologiara eta giza eboluzioaren azterketara hurbilketa praktikoa eskaintzen du. Aranzadi Zientzia Elkartearen adituen eskutik, ikasgelan, DBHko eta Batxilergoko ikasleek benetako hezur-hondarrak identifikatzeko erronkari aurre egingo diote, iraganeko pertsonen bizitza berreraikitzeke. Jarduerak ikasgela ikerketa-laborategi bihurtuko du, eta bertan anatomiari eta historiaurreko teknologiari buruzko ezagutzak aplikatuko dira nor garen eta nola eboluzionatu dugun ulertzen laguntzen duten enigmak argitzeko.

Horrek guztiak agerian uzten du Aranzadi Zientzia Elkartearen eginkizuna: ondare zientifiko, historiko eta kulturalaren kontserbazioan eta balioan jartzean erreferentziazko erakundea izatea, gure gizarte modernoaren eboluzioa ulertzeko funtsezko elementuak baitira..

STEM Deskribatzaileak

STEM 1	STEM 2	STEM 3
STEM 4	STEM 6	

Baliabideak

Baliabide materialak

Jarduera egingo den ikasgelak ordenagailua, proiektorea eta audio-irteera izan beharko ditu.

Baliabide ekonomikoak

Ez dira behar.

Informazio gehiago

aranzadi.eus

A·02 Antropologia, hezurren hizkuntza

02

GARAPENA

Prestaketa fasea

Irakasle-Profesionala: aranzadiko langileek Zientzia eta Teknologiako irakasleekin harremanetan jarriko dira arkeologia tailerra koordinatzeko. Laguntza-material gisa gida didaktikoak eta baliabideak bidaliko dira, bisita egin aurretik kontzeptu teknikoak gelan lantzeko.

Gutxi gorabeherako dedikazioa:
ordubete

Aurretiko lana ikasgelan: ordubeteko 2 saio, lanbide urdinak ezaMaterial horiek oinarri hartuta, parte hartzen duen irakasleak zenbait kontzeptu azaldu beharko ditu adituaren bisita baino lehen (giza anatomia, eboluzio-prozesuak eta hautespen naturala). Irakasleek ikertu beharko dute zientziak nola laguntzen duen historiaren berreraikuntzan froga materialetatik abiatuta.

Gutxi gorabeherako dedikazioa:
ordubete

Jarduera gauzatze fasea

Ikasleei Adimenaren jauzia: antropologia forentsea izeneko erronka planteatuko zaie.

Gelan aurretik landutako ezagutzetan oinarrituta, eta Aranzadi Zientzia Elkarteko adituen orientazioari esker, ikasleek benetako hezur-hondarren diagnostiko zientifikoa egin beharko dute. Fitxa teknikoak erabiliz, sexua, heriotzaren unean zuen adina eta patologia zehazten saiatuko dira, pertsona baten bizimodua berreraikitzeke.

Erronka amaitzeko, biziraupen teknikaren oinarritzko esperimentazio bat egingo da (sua eta aerografia historiaurrekoa), ikasleek eboluzio teknologikoa baloratu ahal izan dezaten.

Gutxi gorabeherako dedikazioa:
2 ordu

Ikasgelan integrazio fasea

Ikasleek ondorioen txosten bat prestatuko dute, eta bertan azalduko dute nola laguntzen duten beren

aurkikuntzek gure ondarearen kontserbazioan eta gizartearen eboluzioa ulertzen. Baloratuko da ikasleek gelan ikasitako ezagutzak eta adituarekin egindako saioan lortutako datu errealak uztartzeko duten gaitasuna.

Gutxi gorabeherako dedikazioa:
ordubete

A·02 Antropologia, hezurren hizkuntza

03

CURRICULUMAREKIN LOTURA

Jardueran lantzen diren curriculum-ikaskuntzak:



Kultura zientifikoa

- Etorkizunerako erronka zientifikoak eta lehentasunak.
- Metodo zientifiko-deduktiboa erabiltzea enigma historikoak konpontzeko. Zientzia baloratzea euskal ondare kulturalaren kontserbaziorako tresna gisa.



Teknologia

- Eboluzio teknologikoa: lehen tresnen eta biziraupen-tekniken analisia gizarte-aldaketaren motor gisa.
- Fabrikazio-prozesuak: kate teknikoaren analisia, lehengaiaren eskuratzetik azken produkturaino (aizkorak, arkuak, labar-pinturak).



Biologia / Geologia

- Anatomia konparatua: hezurren identifikazioa. Hominizazioaren eta bipedestazioaren mekanismoak (Darwinen esperimntua).
- Ebidentzia fosilen eta biologikoen interpretazioa.
- Landa-metodologia: ebidentzien erregistroa, katalogazioa eta interpretazioa.
- Datazio erlatibo eta absolutuko teknikak aztarnategi arkeologikoetan.